

Bilboko gotzain laguntzaileak deia egin die familiei “lanean topo egitera ateratzen den Jesus ezagutzeko”

Mario Izetak, Bilboko gotzain
laguntzaileak, Ikastetxean Ama
Birjinari Bederatziurrenaren
bigarren egunean zehar,
Gazteluetako familiei eman
zien homilía

Bilboko gotzain laguntzaileak, Mario Izetak, animatu egin zituen Gaztelueta ikastetxearen, Bizkaian Opus Dei-ren obra korporatiboa denaren familiak “hemengo gauzen lozorrotik iratzartzeko” Abendualdian zehar, geroago “familiar, lanean topo egitera ateratzen den Jesus ezagutzeko”. “Abendualdia itxarote-aldia da. Ezin zaigu gertatu birjin memelak modura; Jesus egunero dator gugana, behar gaitu eta ezin dugu Bera ez ezagutu” esan zuen joan zen abenduaren 1ean, Gazteluetako otoitz-lekuan ospatu zen Ama Birjinari Bederatziurrenaren lehen egunean.

Jarraian agertzen dugu gotzain laguntzaileak eman zuen homiliaren laburpen bat:

“Azpimarratzea nahiko nuke Abendualdia graziazko denboraldi berri baten modura. Izan ere, honela

da: Jainkoa berriro dator gure
ondora, lo egotetik, ohiko gauzen
lozorrotik iratzartzeko. Hona,
denboraldi honetako lau
ezaugarriak: desiratu, itxaron, zain
egon eta otoitz egitea.

Lehena, desiratzeko aldia dugu:
Jainkoa desiratzea, berau baita gure
bihotzak nahi dezakeenik sakonena.
Atzo, igandez, irakurri genuen
Isaiasen hitzekin: "Ai zerua urratu eta
jaitsiko bazina. Orduan urtu egingo
dituzu mendiak zure indarrekin".
Horixe Jainkoaren nahia. Gizakia,
nahiengatik mugitzen da, eta
Jainkoaganako nahi hau da Haren
irudia garenaren ikurra, gudan
aztarna utzi duenarena. 114 salmoak
dioenez: "Nire arima zure egarriz
dago. Nire ahoa lehor-lehor dago".
Nik, zer nahi dut nire bizitzan?
Norantz jotzen dut nik?

Ume batek jangura galtzen duenean,
gaixo denaren seinalea da. Gauza

bera gertatzen zaio gizakiari,
Jainkoaganako nahirik ez duenean.
Hemengo gauzak ez dira gai gure
gosea asetzeko eta asko dira euren
interesengatik oka eginik daudenak.
Hau gertatzen bada, Jainkoa ukatu
egingo dute azkenean. Eska dezagun
gaur: Jauna, nik izan dezadala
Zuganako gosea, Zuganako egarria,
ez ditzadala beste gauzak bilatu;
ezpada Zu zerbitzatzeko desioak
baizik. Loilako San Iñaxiok zioen:
“Jauna, Zurekin eta Zu modura”.
Jauna, beti zurekin txirotasunean,
Gurutzean, gero, baita Aintzan ere
Zurekin egoteko. Jainkoaganako
desioa sorrarazi behar dugu
Abendualdi honetan.

Abendualdia, itxaropen aldia dugu.
Aita Santuaren bigarren entziklikak,
“Spes Salvi” diosku “itxaropenez
salbatuak izan garela” San Pabloren
hitzetan. Jesukristo da itxaropen
fidagarri eta egiazko bakarra. Bera
bakarrik. Horregatik esan nahi

nizueke ez dezazuela itxaropena
jarri beste gauzetan, ez fidagarriak
ezta egiazkoak ere ez diren beste
gauzetan. Gaur egun, asko dira euren
bihotza, itxaropenak,
aberastasunetan, euren dirutan
jartzen dituztenak. Zertarako balio
die orain, aurtengo krisialdi
ekonomikoaren hondamenarekin?
Erdi milioitik gorako langabetuak.
Gauzak, ekonomia, ez dira azken
itxaropena. Gogoratzen duzue
parabola hura, bihitegia betea izanik
atsedena hartzea erabaki eta gau
hartantxe Jainkoa bila joan
zaionarena? Jainkoak ematen dio
parabola horri gakoa: gizakiaren
bizitza ez dago dituen ondasunen
pean. Egiazko bizitza, betirako dena,
ez dago dituzun ondasunen pean.
Lehen irakurgaiak zioen. Salbamena,
Jainkoak ematen du (...)

(...) Gaur eskatzen diogu Ama
Birjinari, bere Bederatziurrenaren
egun honetan irakats diezagula

Jainkoa desiratzen. Emaiguzu erne dagoen bihotza. Ez gaitezela lozorroan bizi. Otoitz egin dezagun San Pablok modura: “Iratzarri, ez egizu lorik, altxa zaitez hilen artean zeren Kristo izango baita zure argia”. Ilusio berarekin itxaron egin zuen Ama Birjinak Jesusen jaiotza, itxaron dezagun guk Gabona. Gauza materialek ez gaitzatela distraitu. Gabon gauez nahi dezaguna gure Kristo, gure Jauna izan dadila. Jauna, bada hemen zerbitzatzen zaituen bihotz gazte bat, agian jaio zinaneke estalpea baino zikinagoa. Zatoz nire bizitzara. Horrelaxe eskatzen diogu Ama Birjinari, lagun gaitzala Abendualdia bizi izaten”.

familiei-lanean-topo-egitera-ateratzen-
den-jesus-ezagutzeko/ (2025 Abu 8)